

Lan munduan
GEROA
euskaratik



Inoiz pentsatuko ez genukeen egoera bizi izan dugu azken hilabeteotan. Egun batetik bestera, gure etorkizuna baldintzatuko duen pandemia bat sartu zaigu. Eta, horrelako testuinguruek eragile zaurgarrienei eragiten dien gehien, bai eta hizkuntzen eremuan ere.

Halere, egoera berri honek utzi digun agertokiari erreparatuz, egia ere bada, inoiz baino garrantzi gehiago hartu beharko lukeela gizarte justu eta berdinzalea eraikitzeko bideak. Gizarte justu eta berdinzalego bat behar dugu, jasangarriagoa, iraunkorragoa, bizigarriagoa. Eta, hori, noski, euskaratik eraiki behar dugu.

Gainera, bide horretan ez gaude bakarrik. Kontseiluko lan sektorea osatzen dugun eragileok elkarlanean aritu gara beharrak identifikatzen, lantzen eta zehazten. Halere, horretarako bide lagunak behar ditugu. Administrazioaren laguntza eta eredugarritasuna behar ditugu, herritarren hauspoa behar dugu, enpresen konplizitatea behar dugu. Orain da garaia elkar hartzeko, elkar aitortzeko eta elkarri laguntzeko.

Hortaz, ekin diezaiogun guztiok gizarte berdinzaleagoa, justuagoa, orekatuagoa eraikitzeari, eta beraz, ekin diezaiogun guztiok lan mundua ere euskaratik eraikitzeari.



Eremu sozioekonomikoaren euskalduntzeaz

Eremu sozioekonomikoak pertsonen egunerokoa ardazten du, kontsumitzaile, langile zein herritar gisa. Horrek, noski, berebiziko eragina du guztion hizkuntza-portaeran.

Eremu honen euskalduntzean ez gara hutsetik abiatzen. Azken hoge urteotan esperientzia eta proiektu ugari garatu dira, bai euskalgintzaren bultzadaz (aholkularitzek sustatutako euskaraplanak, Bai Euskarari Plan Estrategikoa, Bai Euskarari Ziurtagiria...) bai eta, zenbait kasutan, administrazioaren laguntzaz (Lanhitz, Bikain...) ere.

2

Horri esker, urteetan pilatutako esperientzia eta ezagutza ditugu, lan-munduari euskalduntze prozesuan jauzi berria emateko. Gainera, argi dugu, orain dela horretarako unea. Izan ere, aukeraleihoa zabaltzen duten eta aldi berean gertatzen ari diren bi fenomenok bat gertatuko dira urteotan. Batetik, adin piramideari begiratzen badiogu, datozen 10-15 urteotan langileriaren multzo handi batek erretiroa hartuko duela ikus daiteke. Eta bestetik, epealdi horretan lan mundurako jauzia egitekoa den gazte belaunaldian euskararen ezagutza-tasa (%55,4) beste adin taldeetako baina dezente altuagoa dela ohartuak gara.

Hortaz, esan dezakegu, euskaraz lan egiteko inoiz baino prestatuago dagoen belaunaldia izango dela ondorengo urteotan lan-munduan. Halere, jakin badakigu, noski, horrek berez ez duela ekarriko eremu sozioekonomikoaren euskalduntzea.

Aitzitik, alderantzizkoa ere gertatu litekeela, alegia, eremu sozioekonomikoak belaunaldi horren erdalduntzea bultzatzea, hezkuntzaren bidez jende hori euskalduntzeko urteetan eginiko ahalegina eta inbertsioa zapuztuz.

Hartara, belaunaldi berri horren lan-munduratzeko prozesuan nagusitzen den joerak markatuko du epe ertain-luze batean eremu sozioekonomikoko euskararen normalizazioaren nondik norakoa, eta horrekin, euskararen normalizazio-prozesua oro har.



Horrek ezin digu ezkutatu, ordea, gaur egungo egoera gordina. Gaindegiaren 2012ko datuen arabera, Euskal Herrian 130.000 mila establezimendu inguru zeuden.

Garai berean, 264 establezimendu ari ziren parte hartzen Lanhitz programaren barruan (2018an 441), Bai Euskarari Ziurtagiridunak, aldiz, 1.390 ziren (2018an 1.364). Guztiak batuta ere, gutxi gorabehera establezimenduen %1 soilik dabil euren jarduna euskalduntzeko lanketa sistematiko batean murgilduta.

Horrek ez du esan nahi, noski, gainerako establezimendu guztien egunerokoa erdarazkoa denik. Pentsatzekoa da horietaz gain zenbait establezimenduk – ingurune euskaldunetakoak behinik behin- euskaraz jardungo duela halako lanketarik izan ez arren.

Edozein kasutan, datuek argi erakusten dute eremu sozioekonomikoan badagoela non eragin, epe ertain-luzean euskaldunduko bada. Are gehiago, esparru horretan langileen eta kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak jokoan daudela aintzat hartuta. Azken horiei dagokienez, datu esanguratsua da hizkuntza-eskubideak arautzen dituen EAEko dekretua establezimenduen %2k soilik betetzen zuela 2015ean eginiko azterketaren arabera. Pentsatzekoa da, beraz, beste eremu administratiboetan egoera oraindik makurragoa izango dela.



COVID 19aren krisiaz

Testuinguru horretan etorri zaigu Covid-19-aren krisia; eta, krisi guztiek egin ohi duten gisan, aukerak eta mehatxuak mahai gainean jarritz, lehendik zetozen joera batzuetan sakonduz eta faktore berriak mahai gaineratuz. Horrela, lan eremuaren euskalduntzearen inguruko akordio sozial eta politiko zabalaren faltan, aurreko krisialdian ikusi izan dugun bezala, administrazioek eta enpresek alor honen euskalduntzea baztertzeko edo behar besteko ahaleginak ez bideratzeko arriskua bistakoa da. Azken asteotan, horren inguruko adibide ugari ikusi ahal izan da batean eta bestean.

4

Halaber, ulertzen dugu, bide hori abiatua zuten hainbat enpresa txikiak eta ertainek ez dutela behar beste baliabide izango inbertsio horri eusteko. Bide beretik, testuinguru berri honetan, entitate gehiagok euren lan-jardunean euskararen normalizaziorako prozesuak abiatzeko baldintzak zailduko direla aurreikus daiteke. Izan ere, guztioi eragingo digun ziurgabetasun garaia izango ditugu aurrean, eta horrek epe ertain bati begirako aurreikuspenak eta inbertsioak egitea zailtzen du.

Argi dugu, krisi honek lehendik zeuden gabezia batzuk ageriago jartzen eta jarriko dituela eta eremu sozioekonomikoaren euskalduntzeari dagokionez, prozesu hori burutzeko babes juridiko egokiaren falta nabarmendu zaigu.

Besteak beste, krisialdi garaian zerbitzuak euskaraz jasotzeko hizkuntza-eskubidea, zein euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzeko arkitektura juridiko egoki baten hutsunea agerian geratu da; kontsumitzaileen zein langileen babesgabetasuna agerian utziz.

Horrek guztiak, noski, eremu sozioekonomikoaren euskalduntze prozesuaren une honetako ahuldadeaz zer pentsatua eman beharko liguke. Are gehiago, zenbait administrazioen aldetik, eredu izatetik harago, atzerapauso nabarmenak ikusi ditugunean.

Hastapenean aipatu dugun bezala, ordea, krisi guztiek dakarte aldaketarako aukera. Krisi berri honek zer nolako etorkizuna eraiki nahi dugun pentsarazi digu eta gure esparruan, aspaldi entzuten hasiak geunden gizarte-erantzukizunak, inguru hurbilarekiko harreman adeitsuak eraikitzeak eta gertukoa balioan jartzeak indar berria hartu dute.

Horrela, etorkizun berri hori euskaratik eraikitzeko aukera zabaltzen zaigula uste dugu. Abagune hau geroa euskaratik pentsatzeko eta eraikitzeko baliatu behar dugula pentsatzen dugu eta euskara ardatz hartuta, gizarte justuagoa eta berdinzalegoa eraikitzen joateko aukera dugula uste dugu.

Bide horretan, eginiko lanari esker eraiki ditugun indarguneak baliatzeko modua bilatu beharra ikusten dugu. Horrela, eremu sozioekonomikoaren euskalduntzean urteetan pilatutako esperientzia, ezagutza eta garai nahiz baldintza berrietara egokitzeko gaitasuna balioan jarri beharko genituzke. Lehendik aipatu dugun lan-munduko belaunaldi aldaketa ere ate joka dugu, eta aukera hori baliatzekotan, orain baliatu behar dugu.

Azkenik, hizkuntza-politiken esparruan azken urteotan eman diren urratsak eta horietan eremu sozioekonomikoaren euskalduntzean aurrera egiteko zabaltzen diren aukerak ere aintzat hartu beharko genituzke: EAEko Eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko plana, Nafarroako Euskararen Lehen Plan Estrategikoa eta Euskal Hirigune Elkargoak onartutako Euskararen Aldeko Hizkuntza Politika batez ere. Euskalgintzaren eta administrazioaren lankidetzarako markoa eskaintzeaz gain, lan-mundua euskalduntzeko norabide nagusiak marrazten dituena.

Epe laburrean garatu beharreko ekarpen gisa ulertzen dugu beraz, ondorengoa. Aurrerago, epe ertain eta luzera begira, proposamen osatuagoa edo integralagoa egiteko ahaleginaren baitan, lehen urratsa.

Krisi-testuinguru honetan, beraz, eremu sozioekonomikoaren euskalduntzeari begira urrats berriak emateko eta atzerapausoak saihesteko eman beharreko presazko edo urgentziazko neurriak zehaztera dator honako dokumentu hau.



Urgentziazko neurrien norabideaz

6 Covid-19ak sortutako krisi-egoerari eremu sozioekonomikoa euskalduntzearen ikuspegitik erantzuteko garaian, argi dugu, orain arte bezala, hiztunon eta hizkuntza-komunitateon arteko elkarbizitza jarri behar dela erdigunean, eta horretarako, ezinbestekoa dela horien guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea. Beraz, eremu sozioekonomikoari gagozkiolarik urgentziazko neurri hauek kontsumitzaileen, erabiltzaileen eta langileen hizkuntza-eskubideak bermatzea dute ipar. Horrekin batera, ordea, ezin dugu aipatu gabe utzi, administrazioari dagokiola, hizkuntza-eskubideen bermea eraginkortasunez burutzeko, lehendik ere eskura dituzten tresnak (esaterako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza-eskubideen dekretua) eta baliabideak baliatzea.

Testuinguru berri honetan, elkar zaintzearen ideiak garrantzia berezia hartu du, inoiz baino ageriago geratu baita pertsonon eta eragileon arteko interdependentzia. Elkar zaintzearen balioetik, berriz, zuzen-zuzenean eratortzen da enpresen gizarte-erantzukizuna. Enpresen artean, azken urteotan, indarra hartzen ari da ideia hori eta, estuki lotuta, baita garapen jasangarriarena ere. Hortaz, enpresei dagokienez, norabide horretan aurrera egiteko ikuspegiz proposatutako neurriak dira hemen jasotzen direnak.

Azkenik, proposamen hau osatzeko garaian, argi dugu proposamenaren jasole nagusia den administrazioak eremu sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko duen aukera, zeresana eta erantzukizuna berebizikoak direla. Zentzu horretan, administrazioek, eta batez ere, eremu sozioekonomikoarekin lotura duten bere sail guztiek eredu izan beharko luketela uste dugu. Eredu izateak, beste batzuei praktika egokiak erakustez gain, sustapen lana egiteko eta besteei eskakizunak ezartzeko abiapuntua izan beharko bailuke.

Zentzu horretan, ezinbestekoa deritzogu, aurrez esandako bidetik, administrazioek eurek erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko hizkuntza-praktika egokiak garatzeaz gain, kontsumitzaileen eta langileen hizkuntza-irizpide bermatzeko ere neurriak garatzeari. Bide hori egiteko enpresetan beharrezko sustapen-lana eginez, betebeharrak ezarriz eta laguntza eskainiz.



Urgentziako neurriak

Aurrez aipatu bezala, jarraian jaso dira krisi-egoera honi erantzuteko, epe motzean indarrean jarri beharreko neurriak. Egoeraren bilakaeraren arabera, neurri berriak proposatzea aztertuko da. Edozein kasutan, honako ekarpen hau Kontseiluko lan-munduko eragileon eta administrazioen lankidetzaren marko egonkor baten baitan kokatzearen aldekoak gara. Horrela, neurri hauen edo bestelakoen egokitasuna, eraginkortasuna eta bideragarritasuna, elkarrekin, elkarlanean aztertzeko, eskua luzatzen diegu administrazioei. Horiek esanda, hona hemen proposatzen diren neurri zehatzak:



Eginiko lana babesteko neurriak

1. **Eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko**, Covid-19ak eragindako krisiaren aurretik euskalgintzako lan-munduko eragileekin lankidetzan **hitzartutako eta aurreikusitako proiektu eta ekimenak aurrera ateratzeko konpromisoa**. Krisi honek proiektu eta ekimen horiek garatzeko sortu dituen baldintza bereziak aintzat hartuta, beharrezko egokitzapenak eginez, bai horien garapenean, zein horien justifikazioan ere.
2. Zentzu berean, administrazioek jada **abiatuak dituzten** eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko **plangintza desberdinei eusteko** eta aurreikusitako baliabideez hornitzeko **konpromisoa hartzea**.

Euskararen sustapenean konpromisoa izan duten enpresak laguntzeko neurriak

3. Gaur egun, euskara ziurtagirien bidez edota euskara-planen bidez, euren lan-jarduna **euskalduntzeko prozesu egituratuak martxan dituzten enpresei** begira, egoera honek atzerapausoak eragin ez diezazkien, galera arriskuak dituztenen kasuan, prozesu horiei eutsi ahal izateko **laguntza-lerro berezia sortzea**, izan dirulaguntza zuzenen bidez edota hobari fiskalak eskainiz.

Enpresa berriak erakartzeko neurriak

4. Ekonomiaren eta enpresen berraktibaziorako sortuko diren programetan eta laguntza-lerroetan, gizarte-erantzukizunaren bidetik, zeharkako beste gaiekin batera (parekidetasuna, ekologia...), **enpresen jarduna euskalduntzeko jardun egituratuari** (ziurtagiria edo euskara-plana), **balio gehigarria esleitzea** laguntza horiek eskuratzeko garaian.
5. Ildo beretik, administrazioak garatzen dituen kontratazio eta lizitazio-eskaintza berri guztietan, erabiltzaile, kontsumitzaile eta langileen **hizkuntza-eskubideak bermatzera bideratutako klausula sozialak ezartzea eta betearaztea**.



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA



GEROA
EUSKARATIK
elkar hartuz, elkar zainduz

+34 943 59 12 00 

kontseilua@kontseilua.eus 